

Lanean ere askatasunez bizi gaitezen, indarkeria matxistak ikusgarri egin!

Prebentziorako, formakuntza eta informazioa funtsezkoak dira!

LAB sindikatuak ibilbide luzea du lan arloan ematen diren indarkeria matxisten aurkako borrokan eta salaketan. Konpromiso horretatik, urteak daramatzagu salatzen indarkeria hau —egiturazkoa, sistemikoa eta gure bizitzako eremu guztietan presente dagoena— lantokietatik ere borrokatu behar dela.

EHUn ere, ez dugu soilik salatutako kasuetan jarduteko jarraibideak ematen dituzten protokoloak eskatzen; neurri horiek benetan martxan jartzea ere eskatzen dugu, bereziki PREBENTZIORAKO helburuarekin. Hau da, informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-neurriak sustatzea, ez soilik protokoloen existentzia ezagutarazteko, baizik eta indarkeria matxisten aurkako jarrerak eta portaerak eraldatzeko eta egunerokoan lantokietan gertatzen diren indarkeria mota horiek detektatu eta desagerrarazteko.

Horregatik, eta EHUn dauden protokoloak benetako indarkeria matxisten prebentziorako tresna erabilgarriak izan daitezen, EHUri eskatzen diogu:

- Indarkeria matxisten prebentziorako prestakuntza barne-prestakuntza planetan txertatzea, bai lehendik jasotakoa sendotzeko, bai langile berriei ere prestakuntza hori bermatzeko.
- Emandako prestakuntzaren eraginaren diagnostikoa egitea, hurrengo alderdiak jasoz:
 - Prestakuntzaren ondorioz gertatutako jarreraren aldaketak.
 - Martxan jarri diren antolakuntza-aldaketak.
 - Emakumeen pertzepzioa protokoloak haien babesa eta segurtasuna hobetu ote duen baloratzeko, indarkeria matxista bizi ahal izateko arriskuaren aurrean.

Hau guztia martxan jartzea eskatzen dugu 2026ko martxoaren 8a baino lehen.

Borroka honek etenik ez duenez, aurten ere mobilizazioak antolatu ditugu eta bertaratzera animatu nahi zaituztegu. Mezu honi atxikita aurkituko dituzu deialdi ezberdinen xehetasunak.

Amaitzeko, berriz diogu: ASKATASUNEZ BIZI NAHI DUGU LANTOKIETAN. Sindikalgintzatik, indarkeria matxistak eta haien oinarri diren jarrerak eta sinesmenak borrokatzen jarraituko dugu, fronte guztietan.

Azaroak 25

Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Eguna

INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN, *sindikalismo feminista!*

Zenbaezinak dira emakumeok* sistema kapitalista zisheteropatriarkalaren eraginez jasaten ditugun erasoak; bai kanean, bai etxeetan, eta baita lan-zentroetan ere. Instituzioetatik planteatzen diren neurri eta protokoloek zertarako balio dute? **Indarkeria matxistaren aurkako egungo politiken porrotari buruz hitz egin dezakegu jada?** Edo jarraituko dugu instituzioetatik enpresetan protokolo antzuak bultzatzen, arazoari aurre egiteko gaitasunik ez daukatenak?

EAEko kasuan, Nerea Melgosak berak aitortu du: "Hutsune handia antzeman dute lan eremuan: bortxa pairatutako andre gehienek ez daukate nora jo enpresaren barruan". Datuek argi azaltzen dute EAEn 74.749 emakume pairatu dutela indarkeria matxista (izan sexuagatiko jazarpena edo jazarpen sexuala), eta horietatik guztietatik %4k bakarrik salatu dute. %63k adierazi dute enpresak ez duela berariazko prestakuntzarik ematen sexu jazarpeneko kasuetan gauzatu beharrezko prozeduraz.

Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko errealitateari dagokionez, adierazgarria da, halaber, bertako instituzioek ez dituztela sistematizatzen, baina egoera ez dela asko aldatzen. Zenbait inkestatako datuen arabera, Nafarroan 6.664 dira azken urtean indarkeria matxista sufritu dutenak.

Datuetatik harago, argi ikusten dugu indarkeria matxistak egunerokoak lan eremuan dituen adierazpen eta

ezaugarritzeak, askotan prekaritatearekin edo bestelako botere harremanekin (izan gure nagusiak edo lankideak) gurutzatuak. Argi ikusten dugu, era berean, zein helduleku gutxi eta zenbat oztupo dauden egoera horiei aurre egiteko, erasoak salatzen ditugunean ez dela inolako neurririk hartzen, edo, neurri zigortzaileak hartu bai, baina erasoak salatzen duen pertsonaren erreparaziorako inolako neurririk ez dela hartzen.

Bada garaia indarkeria lehen mailako arazo politiko eta sozial bezala hartua izan dadin.

Sindikalismo feminista ere indarkeria matxistaren kontrako borroka da. Sindikalismo feminista da langileok daukagun autodefentsa feministarako tresnarik eraginkorrena. Ez gara nekatuko esateaz: instituzioen eta patronalaren hipokrisiaren aurrean, borroka feministaz indarkeria patriarkalari aurre egiten jarraituko dugu. Indarkeria matxistaren aurrean sindikalismo feministari eragiten jarraituko dugu.

Norabide horretan, ez gara besoak gurutzatuta gertatuko: enpresaz enpresa borrokatuko dugu, eta instituzioek eta patronalek dagokiten ardura har dezaten presio egingo dugu. Eskaera zehatzak egingo ditugu, indarkeria matxistaren inguruko formazio eta diagnostiko errealek izan daitezen. Eta, era berean, lantokietan aske izateko ahalik eta espazio seguruenak eraikitzeke lanean jarraituko dugu, eskura ditugun baliabide eta estrategia feministak partekatuz eta hedatuz.

Denok aske izan arte, borrokan jarraituko dugu!

Azaroak 25

Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Eguna

INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN,

sindikalismo feminista!



BILBO • 11:00etan Aldundian

DONOSTIA • 11:00etan Eusko Jaurlaritzan

IRUÑEA • 11:00etan Gazteluko plazan

GASTEIZ • 11:00etan Lan Delegaritzan

IPAR EUSKAL HERRIA • Mugimendu Feministako
mobilizazioetara deialdia

LAB
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA

feminismoari
iragiri